



Abadiñoako San Blas azoka ohiko erara ospatuko dute, gaur

Milaka lagun batuko dira gaur Abadiñoako San Blas azokan. Abeltzain eta nekazarien erakusleioa izango da beste behin ere. Guztira, 76 ekoizle izango dira Abadiñoan, eta 160 abelburu. Asteburuan ere egongo dira ekitaldiak. Domekan, herri proben erakustaldia izango da probalekuan. Letonian jaiotako Martins Licis eliteko atleta kaliforniarak ekitaldi horretan parte hartuko du, Urdax Magunazelaiagaz batera. Worlds Strongest Man lehiaketa garrantzitsuan urrezko eta zilarrezko dominak eskuratutakoa da Licis. • 8



"Maritxiko' batzuk ginela esaten ziguten, hobeto geundela etxean bordatzen"

Pilota • Joan zen domekan Maite Gorrotxategi durangarra omendu zuten Ezkurdiko frontoiaren berrinaugurazioan. Erraketista legez egindako ibilbidea aitortu zioten. • 20



Iker Bilbaoren eta Amaia Agirreren familiek eta lagunak diru bilketa ipini dute martxan

Durango • Baturiko dirua Patagoniara joan diren senide eta lagunak gastuei aurre egiteko erabiliko dute. Horretarako, kontu korronte bat eta 'ikeramaia.eus' web orria sortu dituzte. • 4

Durango Jai Alai elkarteak zesta-puntaren harrobia lantzeko prest

Erreportajea • Durangoko frontoiaren berrinaugurazioagaz batera, zesta-punta sustatzeko elkarteak sortu dute Durangon. Ume eta gazteak kirol honetara erakarri gura dituzte. • 2-3





Ezkerretik hasita: Iñigo Aldekoa-Otalora Txintxurreta (Durango, 1976), Gudiker Alberdi Arrieta (Durango, 1976) eta Pedro Mari Garcia Garitaonandia (Zaldibar, 1950), Durangoko pilotalekuan.

“Durango erdigunea da, baina jaialdiak herririk herri antolatu gura ditugu, eta zesta-punta herri txikietara hurreratu”

Iñigo Aldekoa-Otalora, Pedro Mari Garcia eta Gudiker Alberdi Durango Jai Alai zesta-punta elkarte berriko kideak dira eta Durangon zesta-punta biziberritzea dute helburu

ZESTA-PUNTA • JOSEBA DERTEANO

Durangon badago zesta-punta eskola bat, Ezkurdi Jai Alai izenekoa. Elkarte berria hura ordezkatzeko sortu da?

Iñigo Aldekoa-Otalora: Ezkurdi Jai Alai orain 30 urte sorturiko kluba da eta orduko denporetako klub txiki baten egitura du. Frontoi eraberrituagaz eta orokorrean zesta-puntak bizi duen birjaiotze momentuagaz, zesta-punta munduan ibilitakoak garen hainbat lagunek klub hori txiki geratu zela ikusi genuen, eta egitura modernoago eta berriago bat behar zuela garai berrietara egokitzeko. Ikuspegi horregaz, klub berri bat sortzea erabaki genuen.

Pedro Mari Garcia: Elkarte zaharrak ekainera arte iraungo du eta gero

berriak hartuko du gidaritzan.

I.A.: Baina, azkenean, teknizismo bat da. Denok elkarregaz gabiltza eta hona datozen gazteei berdindie kluba bata edo bestea izan. Inportanteena da metodo berriak darabiltzan proiektu berriztu eta moderno bat aurkituko dutela. Zesta-punta klub berria ambiziozua da.

Egitura modernoan eta metodo berrietan gehiago sakondu zenezakete?

I.A.: Diziplina anitzeko jendea departamentuka banatuta dago. Bakoitzak bere zereginak ditu. Esaterako, batzuk administrazio kontuez arduratuko dira: diru sarrerak lortzeaz, gastuak kudeatzeaz... Metodoei dagokienez, umeak gustura eta entretenituta

egotea gura dugu. Adibidez, ni klub honetara batu nintzenean, 1985ean, zesta hartu eta pilota zelan jaurti ikasten ibiltzen ginen; ariketa bera behin eta berriro, egunetan zehar, harik eta hormara heldu arte. Orduan pazientzia geneukan, baina oso gatxa da gaur egungo umeak hainbeste denboran gauza bera egiten mantentzea. Aspertu egiten dira. Beraz, ariketek dibertigarriak eta dinamikoak izan behar dute; umeak pozik ibiltzea, horixe bilatuko dugu.

Nortzuk izango dira monitoreak?

I.A.: Kirol arloko hiru arduradun daude zuzendaritzan, baina eurak ez dira izango monitoreak. Jende gaztea eta formakuntza duena ekarri gura dugu; esaterako, Soin Hezkuntzako ikasketak dituen. Aurreratu dezakegu monitoreetako bat Aritz Erkiaga izango dela. Monitoreak aldatzen joango dira. Pertsona bat luzaroan badago erre egin daiteke.

Gudiker Alberdi: Otsailaren 12an, 11:30etik 13:00etara ate irekien jardunaldi bat egingo dugu. Bertara gonbidatuta daude umeak eta euren familiak. Atea denentzat egongo da zabalik. Etorkizunean, ez dugu Durangora mugatu gura. Durangaldean ere egin gura ditugu gauzak. Mañarian, Garain... Durango erdigunea da, baina jaialdiak herririk herri antolatu

gura ditugu, eta zesta-punta herri txikietara hurreratu. Historikoki Durangaldeko hainbat herritan egon dira zestalariak. Orduan eurak etortzen ziren Durangora. Orain geuk joan gura dugu euren gana.

Gaur egun neska bakarra dago klubean. Ahalegin berezirik egingo du zue neska gehiago batzeko?

I.A.: Nesken klub erreferente bat bihurtu gura dugu geurea. Markinan badaude neska batzuk, Mutrikun ere bai, baina gaur egun nesketan ez dago erreferente edo onena lez hartu daitekeen klubik. Epe laburrean mutiletan onena izatea oso gatz daukagu, beste klub indartsu batzuk daudelako. Baina aukera bat ikusten dugu nesketan erreferentzialtasuna lortzeko, eta horren alde lan egingo dugu. Gainera, abantaila batez gaza hasiko gara: emakumeen Winter Series txapelketa Durangon egingo da laster. Horrek promozio itzela egingo digu.

Bazkide kanpaina martxan duzue.

I.A.: Bai, bazkide egitea urtean 20 euro da eta interesdunek *durango.jaialai@gmail.com* helbidera idatzi dezakete edo telefono hauetara deitu: 666 176 286/650 482 198. Eta zuzendaritzarako emakumeren bat animatuko balitz, ateak zabalik ditu.

Eraman Jai Alai enpresak behin baino gehiagotan adierazi du Durango

garrantzi handiko plaza dela euren zat. Esperantza izateko berbak dira.

I.A.: Historikoki plazarik garrantzitsuena izan da Durango. Hiriburuetatik hurbil dago, 30.000 biztanle ditu eta ondo komunikatuta dago. Durango zesta-puntari beste aupada bat emateko tranpolin lez ikusten dutela uste dut.

Pedro Mari Garcia: Izan ere, frontoirik onena da zesta-puntaz gozatzeko! Pilotaren soina, zaleen hurbiltasuna... Edonon jarrira ere pilotarien gainean zaude ia. Oso frontoi atsegina da partidua ikusteko.

Pilotalekua lepo bete zen irekieran. Baina nobedadea ere bazen. Epe ertainera, mantenduko ote da interesa?

G.A.: Oraindino ez dago jakiterik. Baina, esaterako, zesta-puntagaz sekula hartu-emanik izan ez duen jendea ikusten dut Gernikako frontoian. Hori esanguratsua da. Familian joaten dira, eta herritik kanpokoak dira batzuk. Bilbotik doaz, Getxotik... Lehen ez zen horrelakorik ikusten. Eraman enpresakoek aldatu egin dute zesta-puntaren eredua; orain ikusizun erakargarriagoa da. Gernikan funtzionatzen du. Durangon? Ikusiko dugu.

I.A.: Arrakastarako gakoetariko bat zesta-punta eskola da. 50-60 ume badabiltza, euren familiekin bakarrik giroa egongo da frontoian.

“Ikuskizun ona eskaini eta emakumeok zesta-puntan jokatu dezakegula erakutsi genuen”

Elkarte berria neska gehiago batzeko lan-tresna baliagarria izatea espero du Helena Barrenetxea durangarrak



**Helena Barrenetxea
Fernandez**

Zestalaria

DURANGO | 2007

ZESTA-PUNTA • J.D.

Helena Barrenetxea Durangoko zesta-punta eskolan dabilen neska bakarra da. 15 urte gaz, ibilbide luzea geratzen zaio aurretik, baina dagoeneko badu marka bat historia-rako geratu dena eta inork kenduko ez diona: Ezkurdi Jai Alai eraberituko lehenengo pilotakada berea da. Inaugurazio jaialdiko partiduan

jokatu zuen eta estreinako sakea berak atera zuen.

Txapa gorri jausi zen eta hasierako sakea zeuri egokitu zitzaizun. Ilusioa egin zizun hasierako sakea egiteak?

Ilusio handia egin zidan, bai. Hori betiko geratuko da hor eta asko poztzen nau.

Behin Markinako frontoian nengoen aititagaz. Orduan ikusi nuen zesta-punta lehenengoz eta kirol desberdina iruditu zitzaidan

Egun garrantzitsua eta frontoia lepo. Urduri sentitu zinen?

Hasieran bai. 650 ikusle, asko eza-gunak, eta denak zuri txaloka. Gainera, gorriz jokatu genuen eta irabazteko faboritoak ginen. Ez da erraza. Hasieran presioa igarri nuen. Lehenengo zortzi tantoetan oso urduri nengoen, baina partidua aurrera egin ahala neure burua lasaitzea lortu eta gustura ibili nintzen.

Irabazi egin zenuten?

Ez, lehenengo set-a galdu, bigarrena irabazi eta hirugarrena 4-5 galdu genuen. Dena dela, emaitza ez zen garrantzitsuena. Ikuskizun ona eskaini eta emakumeok zesta-puntan jokatu dezakegula erakutsi genuen, eta horixe da inportanteena niretzat.

Noiztik zabilta zesta-puntan eta zelan hasi zinen?

Bederatzi urte gaz hasi nintzen. Aita eta ama markinarrak dira eta aitita-amamak han bizi dira. Markinan zesta-punta hemen futbolaren parekoa da. Aititak pilotari asko ezagutzen ditu, eta, behin, Markinako frontoian nengoen beragaz. Orduan ikusi nuen zesta-punta lehenengoz eta kirol desberdina iruditu zitzaidan; erakarri egin ninduen. Kasualitatez, hurrengo egunean Durangoko pilotalekuko jendea informazioa zabaltzen zebilen

eta aitari esan nion: "Probatu egin behar dut". Horrela hasi nintzen.

Aurretik beste kirol batzuk probatu zenituen?

Bai, saskibaloia, eta oraindino jarraitzen dut, Tabirakon.

Eta zelan uztertzen dituzu kirol biak?

Txandakatzen. Saskibaloiko entrenamendu bat galtzen badut, bada, hurrengoan zesta-puntako bat galtzen dut, eta horrela. Partidua bateratzea ere ez da erraza. Baina, gurasoek esaten didaten moduan, ikasketak dira inportanteena. Ikasketak lehenengo, eta gero beste dena.

Txapelketak jokatzen dituzu?

Durangoko zesta-punta eskolan neska bakarra naizenez, federazioetako ligak beste eskola batzuekin jokatzen ditut. Esaterako, Bizkaikoa Berriatuko eskolagaz jokatu nuen. Han ere neska bat dabil eta beragaz ibili nintzen. Orain Markinagaz nabil Euskadi mailako torneo batean.

Emakume asko zabilta Euskal Herrian?

Oso gutxi gaude. Hamar bat. Berez neska asko dago, baina ez dute jokatu gura. Beraz, zesta-punta eskolak batu egiten gara eta elkarregaz aritzen gara.

Zesta-punta eskola berriagaz neska gehiago hasiko den esperantza duzu?

Bai. Aukera ona da neska gehiago batzeko. Joan zen barikuan erakutsi genuen neskak ere berdinditu aritu gaitezkeela zesta-puntan. Bultzada bat emateko balio izatea espero dut. Orokorrean, eskola berria neska zein mutil gehiago batzeko aukera da. Onurak ekarriko dituela uste dut.

Ezkurdi Jai Alai pilotalekua handi bihurtu zuten frontoia inauguratuta eta Durangoko zestalari historikoak omenduta

Durangok eman dituen puntistatik handienetarikoz batzuek udalaren eta zaleen errekonozimendua jaso zuten



Durangoko udal ordezkariak zestalari historikoekin, joan zen barikuko jaialdian.

ZESTA-PUNTA • J.D.

Durangoko zesta-puntak esperantzazagaz begiratzen dio etorkizunari eta baliteke aro emankor baten atarian egotea. Ez litzateke lehenengo aldia izango. Sasoia batean, zesta-puntak jendea eta dirua mugitzen zituen urteetan, Ezkurdi Jai Alai 'zesta-puntazaleen triangelua' deitzen zitzaion zirkuituko erpin bat izan zen, Markinako eta Gernikako pilotalekuekin batera, eta makina bat zestalari durangar ibili zen bertan. Askok, itsasoa zeharkatu eta zesta-puntaren Ameriketako oparoaldia ere ezagutu zuen. Izar horietariko bederatzi frontoiaren irekiera jaialdian batu ziren joan zen barikuan eta omenaldia jaso zuten udalaren partetik. Honako hauek batu ziren: Adolfo Elizegi, Pedro Mari Garcia 'Garita', Rafa Ibarretxe, Roberto Azkarate, Rafael Gorroño, Iñaki Aperribai, Juan Luis Zarrabeitia, Luis Cuerpo eta Roberto Elgea. Kantxa erdira irten eta lore sorta bana, oroigarria bana eta bertaratutako errekonozimendua jaso zituzten.

Iker Bilbaoren eta Amaia Agirreren familiek eta lagunek diru bilketa aktibatu dute

Baturiko dirua Patagoniara joan diren senide eta lagunen gastuei aurre egiteko erabiliko dute. Horretarako, kontu korrante bat eta *ikeramaia.eus* web orria sortu dituzte

DURANGO • JONE GUENETXEA

Iker Bilbao (Durango) eta Amaia Agirre (Urnieta) mendizaleek bizia galdu zuten urtarrilaren 19an, Fitz Roy menditik jaisten zebiltzala gertaturiko elur-jausi baten eraginez. Mendizale bien familia eta lagunek diru bilketa bat ipini

dute martxan. *Ikeramaia.eus* web-gunean azaldu dutenez, "senide eta gertuko lagunen talde txiki batek" Fitz Royra bidaiatzea erabaki du "gorpuak berreskuratzen ahalegintzeko eta dolu-etapa amaitzeko asmoz". Gaineratu dutenez, talde hau alpinista adituek eta bolunta-

rioek osatzen dute. Egoera honen aurrean, kontu korrante bat sortzea erabaki dute, Patagoniara joan diren eta kausa solidario honetan murgiltzea erabaki duten pertsonen gastuen finantziazioan laguntzeko. Honako hau da ekarpenak egiteko kontu korrante zenbakia: ES97 3035 0014 65 014123309.

Familia eta lagunek diru bilketaren helburuak argitu dituzte: "Kontu korrante honetan bildutako dirua Patagoniara joan diren boluntarioen gastu logistiko eta operatiboak ordaintzeko erabiliko dute, elur-jausiak Fitz Royn kalte-tutako Iker Bilbaoren, Amaia Agirreren eta Josu Linazaren benetako egoera ezagutzeko. Ez dago inolako espedizio edo erreskate mota finantzatzeko asmorik". Boluntarioen behar ekonomikoak amaitzat eman eta kontu korrantean dirua geratuko balitz, diru hori Andeatoko El Chantel laguntza-batzordeari emango diote. Behin helburua beteta, kontu korrantea zarratuko dutela aurreratu dute.



Ikeramaia.eus atarian familia eta senideek ipinitako argazkia.



Labanik ez egiteko tratamendua Artekalera zabalduko dute, besteak beste.

Laban egitea saihesteko tratamendua Alde Zaharrean

Durango Alde Zaharreko zoladuran mikrozulaketa lanak egingo dituzte, egun euritsuetan segurtasuna handitzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Orain arte proba pilotuak egin dituzte Durango Alde Zaharreko puntu bitan, eta emaitzak "egokiak" izan direla iritzita, udalak Alde Zahar osora zabalduko du laban egitea saihesteko tratamendua. Barrenkalea, Artekalea, Goienkalea, Kalebarria, Komentukalea, Andra Mari eta Zeharkalea kaleetara zabalduko

dute tratamendua, 12.076 metro karratuko eremura. Lanak udaberriari hasiko dituzte eta bost hilabete iraungo dute. Udalak 145.000 euro ipiniko ditu tratamendurako. Neurriak 8-10 urte irautea aurreikusi dute. Udalak "bizilagunen eskaerei" erantzun gura izan die, egun euritsuetan egoten diren labankadak direla eta.

Geu Be: "Intxaurrondorako mudantza presarik barik egin gura dugu, altzariak, sofak eta diseinua patxadaz landuta"

DURANGO • E.H.

Oraindik ez dago lekualdaketarako data zehatzik, baina gauza ziurra da Geu Bek Garai jauregian duen egoitza atzean utziko duela laster. Elkartea Intxaurrondoko eraikinerak lekualdatu da, udaberri aldera posible bada. Durango Udalak amaitutzat eman ditu Intxaurrondoko eraikinean orain hiru hilabete hasitako lanak. Geu Berentzat egokitzapenak egin

dituzte bertan, 130.590 euroko inbertsioa egin da.

Elkarteko koordinatzaile Julen Bengoak adierazi duenez, "presarik barik" egin gura dute Garai jauregitik Intxaurrondorako mudantza. "Denbora luzean egon gara lokal berriari itxaroten, eta lekualdaketak patxadaz egin gura dugu: sofa berriak, altzariak eta diseinua egin gura ditugu. Lokal txukun bat izan gura dugu eta ez ditugu gauzak presaka egin gura", azaldu du. Geu Bek

San Faustoko eskoletan izan zuen bere lehenengo egoitza eta Garai jauregian egin ditu azken urteak. Laster, Intxaurrondoko eraikinerak lekualdatu dira, herriko beste hainbat elkarteren ondora. Gaur egun, Berbaro, zeramika tailerrak, Izarra elkartea, Errotari, JAED eta Iñurri Skaut daude han, besteak beste. Elkarleen arteko bateratze horrek "sinergiak" sortzeko balioko duela azpimarratu dute udal agintariek.



Geu Beko kideek eta udal ordezkariak instalazio berria bisitatu zuten joan zen astean.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2023ko otsailaren 3a
21. urtea - 923. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Landako kiroldegietan azpikontraturiko langileek iragarri dute mobilizazioak hasiko dituztela

ELA sindikatuak deituko du mobilizazioetara. Kirol zerbitzuen "murrizketak" eta "subrogazioa ez betetzea" salatuko dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Landako kiroldegietan azpikontraturiko langileek iragarri dute protestara irtengo dutela. Halantzik jakinarazi du ELA sin-

dikatuak asteen hedabideetara bidalitako oharrean. Batetik, zerbitzuak "murriztea" egotzi diote Durangoko Udalari. Bestetik, "lan baldintzak eta subroga-

zioa ez betetzea" leporatu diete zerbitzuak eskaintzen dituzten hiru enpresa azpikontraturiei. Kontua da urtarrilaren 19ra arte enpresa bakarra arduratu dela

kirol zerbitzua eskaintzeaz: Sedena enpresa. Baina lizitazio berria indarrean sartu denetik hiru dira Landako kiroldegietako zerbitzuak eskaintzeaz arduratzen diren enpresak: Athlon, BPXsport

rriztuko diete, eta beste batzuei udalaren agirietan markaturiko subrogazio taula aplikatuko zaie", azaldu du ELA sindikatuak. "Lehendik ere konplikatu zen egoera oraindino gehiago" okertuko da", esan dute.

"Murrizketak"

ELAk egoeraren erantzule egin ditu Durangoko Udala eta azpikontraturiko hiru enpresak. Lehenengoari zerbitzua "murriztea" egotzi diote. ELAren berbetan, izurria baino lehenago "astean 140,5 orduko kirol eskaintza" zegoen, baina orain "astean 94 ordukoa da, nahiz eta herritarren eskariak handia izaten jarraitu". Diotenez, fitness gelan "murrizketak" egon dira eta gaur egun ez dago monitoririk "lehenengo orduan eta eguerdian". Bestalde, azpikontraturiko hiru enpresei "lan baldintzak eta subrogazioa ez errespetatzea" egotzi diete. Horren aurrean, mobilizazioak egitera "behartuta" daudela iritzi dio ELAk.



Landako II kiroldegiaren kanpoaldea.

"Langile batzuk ez dira subrogatuak izango, beste batzuei lanaldia murriztuko zaie"

eta SportStudio. "Zatikatzeko" hori dela eta, langileak eszenatoki berri batean daude. "Batzuk ez dira azpikontraturiko enpresa berrietan subrogatuak izango; beste batzuei, zerbitzuaren murrizketak direla eta, lanaldia mu-

Eraso zibernetiko gehiago egon dira Durangaldean

DURANGALDEA • E.H./M.Z.

Azken boladan zeresana ematen dabilten eraso zibernetikoak. Durangoko Udalak asteen konpondu du orain hiru aste sistema informatiko osoa kolokan ipini zuen erasoaren arazoa. Dena normaltasunera bueltatzea lortu dute; tartean, Herritarrentzako Arreta Zentroan eskaintzen diren tramite telematikoak. Baina erasoak ez dira hor geratu. Martitzenean, zibereraso-saiakera bat zela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak euskaldekako hainbat udalen webguneak desgaitu zituen. Aldundiak berak desgaitu zituen udal atariak, datuak babesteko neurri modura. Erasoa ahalegina amaituta, dena lehengoratu dute.

Berton Bertokoa: "Atxondoko eskolan Aste Santuan hasi beharko liriateke sukaldia egiten"

Eusko Jaurlaritzak Atxondoko eskola handitzeko obrak lizitatu ditu eta, aurreikuspenen arabera, udan hasiko dira lanean. Zabalarra eskolan ere udan egin gura dituzte lanak



Atxondoko eskola.

DURANGALDEA • E.H.

Atxondoko eskolan eta Durangoko Zabalarran egitekoak diren obrak direla eta, Berton Bertokoa kideak adi daude. Dinamikako kideak arduratuta daude, urte bat joan eta beste bat etorri, eskoletan sukaldia ipintzeko proiektuak ez direlako gauzatu. Eta, oraingoan, "egindako promesak betetzea" eskatu diete agintariei, "sinesgarritasuna" galdu ez dezaten. Izan ere, Berton Bertokoa gogoratu du Atxondoko eskolan sukaldia ipintzea 2020rako zegoela aurreikusita. Baina ez zen egin, "obra urtebete atzeratzea erabaki zelako". Gero, 2021eko udan zen egiteakoa obra, baina berriro ere atzeratu zuten, "arkitektoagaz pozik ez

zeudela eta berau aldatu zutelako". Iazko udan arazo gehiago etorri zen: obra egiteaz arduratuko zen enpresak behe jo zuen. Berton Bertokoa aurtengo urtean du esperantza. Izan ere, Atxondoko Udalak enpresa berri bat kontratatzekeko prozedura zabaldu du, eta, horren arabera, enpresa martxorako egon beharko litzateke aukeratuta. Lanak udan hastea dago aurreikusita. Dena dela, ez dute kritika ezkutatu: "Gure ustez, obrak Aste Santuko oporretan hasi beharko liriateke, iazkoa errepikatu ez dadin eta hauteskunde garaian honelako promesekin sinesgarritasunik galdu ez dadin".

Zabalarrako obrari buruz, antzera. Sukaldia egiteko obrak udan hastea dago aurreikusita, eta Berton Bertokoa kideek dena behar den bezala egitea eskatu dute. Obra egin ahal izateko lizentziari "behar den moduko garrantzia emateko" eskatu diote Durangoko Udalari, eta obrak "garaiz" egiteko Jaurlaritzari.

PROFESIONALA BAZARA ETA DURANGALDEAN AHOLKULARITZA, ABOKATUTZA, ARKITEKTURA EDO BESTELAKO NEGOZIORIK BADUZU, JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTOKO GIDA BERRIAN.

Informazio gehiago 946 217 902 telefono zenbakian.

anboto

Garaitarrek zabalik dute iazko kirol jarduerengaitik diru laguntzak eskatzeko epea

Udalak diruz lagunduko ditu Durangaldeko udalerrietako kiroldegietara joan diren herritarren matrikulak

GARAI • EKAITZ HERRERA

Diru laguntzaren zenbatekoa gastuaren %30 izango da, baina diru laguntza osoak ezingo du 100 euroko kopurua gainditu eskatzaile bakoitzeko. Honako hau da bete beharreko beste baldintza bat: eskatzaileak Garain erroldatuta egon beharko du eskaria egin baino urtebete lehe-

nagotik, eta erroldatuta jarraitu beharko du ikastaroa amaitu arte. Era berean, eskatzaileak eguneratuta izan beharko ditu Garaiko Udalarri ordaindu beharreko zerga eta tasa guztiak. Laguntzok jasotzeko eskariak Garaiko udaletxean aurkeztu beharko dira, otsailaren 28a baino lehenago.



Berrizburu kiroldegia.



Plastiko birziklatu eta birziklagarriagaz egindako jesarlekuak dira.

Plastiko birziklatuz egindako bankuak ipini dituzte lurretan

lurretako Udalak "ingurumenagaz jasagarriak" diren 10 jesarleku berri ipini ditu Bixente Kapanaga kalean

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak plastiko birziklatu eta birziklagarriagaz egindako 10 jesarleku berri ipini ditu Bixente Kapanaga kalean. Horrela, pauso bat gehiago eman gura dute "garapen jasagarriaren aurrera egiteko eta udalerrri adiskidetsuago bat lortzeko bidean", ohar batean

azaldu dutenez. Ez dute mantentze-lanik behar eta 4.000 euroko inbertsioa egin dute. Askotariko diseinua duten beste 4 banku ere ipini dituzte.

Bestalde, esan dute paperontzi eta bizikletentzako aparkaleku berriak ipiniko dituztela laster, Maspeko autobus geltokitik gertu.

450 eguzki plaka ipiniko dituzte Zornotzako Larrea eskolako eraikin bietan eta Larreako kiroldegian

Udalak 240.000 euroko inbertsioa egingo du hiru instalazioetarako. Urte honen erdialdean instalatu gura dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Larrea eskola, Larrea haurreskola eta Larrea kiroldegia eguzki energiari eskerrak hornituko dira etorkizunean. Zornotzako Udalak 450 eguzki plaka ipiniko ditu eraikinetan. 72 Larreako eskoletan, 144 Luis Urrengoetxea kaleko haurreskolan eta beste 234 Larreako

kiroldegian. Moduluek sorturiko elektrizitatea eraikinak hornitzeko izango da, baina, soberakinik balego, proiektuek aukera eskainiko dute elektrizitate indarra beste udal eraikin batzuetara bideratzeko. Juan Mari Ugalde Iraunkortasun eta Zerbitzu zinegotziak azaldu duenez, hiru eraikinek

"sabai handi zuzenak dituzte, instalazio mota horretarako egokiak". Horregaitik erabaki dute, hain zuzen ere, plaken instalazioa hiru eraikinetatik hastea.

Soberakinik balego, aukera dago elektrizitate indarra beste udal eraikin batzuetara bideratzeko

Aurreikuspenen arabera, 450 moduluei eskerrak 227.880 kilowatt ordu energia sortuko da era jasagarrian. Zornotzako Udalak 240.000 euroko inbertsioa egingo du eguzki plakak instalatzeko. Obrak urtearen erdialdean hasi gura dituzte.



450 moduluei eskerrak, 227.880 kilowattio ordu energia sortuko da era jasagarrian.

Ixerbekoan erabilera anitzeko zentro bat atontzea proposatu du EH Bilduk

Azpiegiturak azokak, musika emanaldiak eta erakusketak hartuko lituzke, besteak beste



Ixerbekoako pabilioia.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako EH Bilduk Ixerbeko pabilioian erabilera anitzeko zentro bat egitea proposatu du. Koalizio subiranistaren esanetan, Zornotzan karpak kendu eta ipini egiten dira urtero ekitaldietarako, eta horrek "gastu handia" dakarrela diote. Ixerbekoa egokitu egin gura dute, "azokak, musika eta kultur jaialdiak, erakusketak edo askotariko ekitaldiak" egiteko bertan. Gaineratu dute azpiegitura horrek "erantzuna" emango liekeela herritarren eta Zornotzako elkarteen eskariei. Bestalde, koalizio subiranistak udal gobernu taldearen jarrera kritikatu du. Ixerbekoa "bota" gura izatea egotzi diote gobernu taldeari, "lursailak saldu eta promotore pribatu batek etxebizitzak egin ditzan".

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA 

MATRIKULAZIO EPEA
otsailaren 13tik 24ra

**ATEAK ZABALIK
JARDUNALDIA,**
otsailaren 11n, 10:30ean
(Aurretiaz deitu)

**2021ean jaiotako haurrei
zuzendua*

ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus



Milaka lagun batuko dira gaur Abadiñon, San Blas azokaren bueltan

Denerik egongo da gaur Abadiñon, San Blas azokan: nekazari eta artisauen produktuak, ganadua eta baserriko tresnak... Eta, zelan ez, ez da jai girorik faltako



2022ko San Blas eguna.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ohiko formatuagaz, San Blas azoka bueltan da Abadiñon, Euskal Herriko txokoetako milaka lagun hartzeko prest.

San Blas eguna egun handia da abadiñarrentzat, eta ez da jai girorik faltako Zelaietan. Ezta nekazarien produkturik, abererik, talorik eta txakolinik, San Blasetako opil eta kordelik ere, besteak beste.

Abadiñon egun osoko egitaraua antolatu dute gaurko. 11:00etan meza egongo da San Trokaz elizan, eta 12:00etan bertsolariak Ferialeku plazan eta herri kirolak probalekuan. Bestalde, 16:00etatik aurrera, DJ Bullek musika ipiniko du elkartsun lonjan, eta 17:00etan erromeria egongo da Ferialeku plazan, Lotxo taldeagaz. Gaztetxean ere Djak egongo dira, 17:00etan hasita. DJ Trebi, NJO eta DJ Gorrinxu eta Laztana izango dira bertan. Eta karpan Xabi Solano eta Zigor DZ musikariak arituko dira, 22:30ean hasita.

Urtero legez, idi probak egongo dira San Blas egunean, probalekuan; 17:00etan eta 22:30ean.



Martins Licis Gisasolatarren etxean.

'Munduko gizonik indartsuenaren' harri jasotze erakustaldia Abadiñon

Abadiñoko probalekuak harri jasotze erakustaldi berezia hartuko du domeka honetan. Bertan, Martins Licis atleta letoniarra izango da, 2019an Munduko Gizonik Indartsuena (World's Strongest Man) sariketa irabazi zuena. Licis Euskal Herriko beste 10 harri jasotzaileguz batera arituko da indar erakustaldia egiten; tartean, Urdax Magunazelaia abadiñarra ere arituko da eurekin. Ekitaldia 12:00etan hasiko da eta probaleku-

Licis Euskal Herriko beste 10 harri jasotzaileguz arituko da; tartean, Urdax Magunazelaia

kurako sarrera debalde izango da, leku guztiak bete arte. Streaming bidez ere jarraitu ahaliko da, Abadiñoko Udalak Youtubean duen kanaletik (InfoAbadiño).

Atxondo "hormigoiairen erreinu" bihurtzen dabilela salatu du AHTaren aurkako plataformak

Ekintzaren ostean udalak bozeramaileen batzarrera deitu zuen, eta udalaren "identitatea ordeztzea" salatu zuten



BAND

Atxondoko Udalak honako erabaki hauek hartu ditu herriaren eraldaketaren ondorioz:
(2023ko otsailaren 1etik aurrera)

1. Herriaren izena aldatuko da: Apatamonasterio zenekoa "Apatatorres" izendapena izango du.
2. Bidegorriaren hasierako zatia moztuko da. AHTaren obrak lasai egin dituzten eta bide bategi herriaren orleko giza harremanak eustatzeko; orain oinezkoek errepideetik igaro beharko dute. Horrela, auto gidariek agurtu ditzakete! Eta ikono bitakatutako dorreak, ondo ikusi.
3. Obrak sortzen dituzten eragozpenak sahesteko babes neurriak eskaritzen dira. Kaskoak eta maskariak udalaren eskuragarri egongo dira. Udaltzetik pasa eta eskuratu AHTaren bidai txartel bonoarekin batera.

Atxondo, 2023ko otsailaren 1ean



Martitzenean ipini zituzten bandoak.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko paisaia guztiz eraldatzen dabil azken hileotan, eta, hori salatzeko, Atxondoko AHTaren aurkako plataformako kideek ekimen bat egin dute asteon. Herriko hainbat tokitan, udalaren logoa ipini dioten bandoa itsatsi dute. Bandoan herriari izena aldatu diote, besteak beste. Apatamonasterio beharrean, 'Apatatorres' izena ipini diote. Eta udaletxean AHTaren bidai txartel bonua eskuratu daitekeela ere ipini dute.

"Bandoari umore kutsua eman diogun arren, min handia eta sakona ematen du ikusteak Atxondo hormigoiairen erreinu bihurtzen dabilela, kontuan hartuta lehen isiltasuna ere entzuten zela hemen", azaldu dute plataformako kideek. Horrez gainera, ekimena AHTaren obrek eragiten dituzten kalteen aurrean udalak duen jarrera salatzeko egin dutela adierazi dute.



Asteburuan ateratako argazkia. GORKA BELASKO

Sketchcrawl ekimenak hainbat marrazkilari batu du Elorrion

Sketchcrawl ekimenaren 78. edizioa Elorrion egin dute, asteburuan. Lehenengoz egin dute bertan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Kalera irten, gustuko txoko bat aukeratu eta hango ingurua marraztu, horixe egin dute Elorrion hainbat marrazkilarik asteburuan. Elorrioko Eskulan Taldeak antolatuta, Elorrioko ekitaldian parte hartu zutenek giro paregabea bizi izan zuten, nahiz eta eguraldiak lagundu

ez. Egun osorako egitaraua antolatu zuten eta, marrazteaz gainera, mahai bueltan elkarrengaz egoteko aukera ere izan zuten.

Sketchcrawl ekimenaren 78. edizioa izan zen Elorriokoa. Marrazketa maratoni moduko bat sketchcrawla, baina ez da lehiaketa bat.

Domekan egingo dute urtarrilaren 29an egitekoak ziren zuhaitz landaketa

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrio-Atxondo Baso Biziak elkarteak Elorrioko Udalaren babesagaz antolatu duen zuhaitz landaketa domeka honetan egingo dute, otsailaren 5ean. Hasieran urtarrilaren 29an egitekoak ziren arren, eguraldi txarrarengatik bertan behera utzi behar izan zuten, eta, azkenean, etzi egingo dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 9:00etan elkartuko dira, San Joseko frontoian. Eta bertatik oinez joango dira zuhaitzak landatuko dituzten lekura; ordubeteko ibilaldia izango da gutxi gorabehera. Antolatzaileek arropa eta oinetako egokiak eramateko eskatu diete ekimenean parte hartuko duten herritarrei.

Zuhaitz landaketa Elorrioko Udalak erosi dituen lursailetan egingo dute. Guztira, 300 zuhaitz landatuko dituzte. Bertako zuhaitzak eta basoak sustatzea da ekimen honen asmoa.



Ate irekiak urte osoan

*Familiaren behar eta erritmoetara
egokitzen den ikastetxea*

BANAKAKO BISITAK

Eskatu zure hitzordua:
94 681 00 50 edo
sanjose@durangojesuitak.org
(0 urtetik 18 urtera)



anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

OTSAILEKO ZOKKETAK



Anonyme Popular
emanaldirako sarrera bikoitza.
Otsailaren 10ean, Arriola
antzokian.



Urtxintxaren fabula
antzerkirako sarrera bikoitza.
Otsailaren 11n, Zornotza
aretoan.



Katagorriaren fabula
antzerkirako sarrera bikoitza.
Otsailaren 12an, San Agustin
kulturgunean.



Arrainak bihotzean
antzerkirako sarrera bikoitza.
Otsailaren 12an, Arriola
antzokian.

*Zokketa hauetan parte hartzeko eman izena
gure webgunean.

IRABAZLEAK


Jatordua Uxarte sagardotegian:

Maite Abendibar

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zokketetan!



Gertakari arrazista eta xenofoboei aurre egiteko protokoloa onartu du Zaldibarko Udalak

Osoko bilkuran onartu dute protokoloa, aho batez; kultur aniztasunaren bizikidetzaren aldeko plana ere onartu dute

ZALDIBAR • A. M.


Zaldibarren protokolo bat sortu dute balizko gertaera arrazista eta xenofoboei modu "egoki eta proportzionatua" erantzuteko asmoagaz. Bertako udalaren esanetan, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lehenengo herria da Zaldibar horrelako protokolo bat onartzen. Bederatzi urteko

elkarlanaren emaitza da protokoloa. "Pertsonak berdintzatatuak izateko eskubidea dute, nazionalitateak, kulturak edo sinesmenak alde batera utzita", azaldu zuen udal gobernu taldeko José Carok. EH Bilduk, bestalde, migrazio politiken eragina salatzen. "Migrazio-mugimenduak inperialismoak eta

kapitalismoak jatorrizko herrialdeetan garatzen dituzten politika estraktibisten eragina dira", azaldu zuen Roberto Macho zinegotziak. Protokoloak eragile instituzional eta sozialak batzen ditu: Zaldibarko Udala, Biltzen, Eusko Jaurlaritzaren Biktimari Laguntzeko Zerbitzua, Eraberean sarea eta Zaldibarko Jendeak elkarteak.

Bizikidetzarako plana

Protokoloagaz batera, Kultur Aniztasunean Bizikidetzaren Positiboa izateko Tokiko I. plana ere onartu zuten urtarrileko osoko bilkuran. 2021ean, Zaldibarko biztanleen %10 inguru atzerriko herrialde batekoak ziren, udalaren esanetan. Zaldibarren bertan kulturen arteko bizikidetasuna modu positiboan lantzeko ekintzak jasotzen ditu planak.



Zaldibar artxiboko irudi batean.

Edukiontzi berriak etxeko olio, arropa eta hondakin arriskutsuak birziklatzeko

Berrizko Udalak Iturritza kaleko 39. zenbakian ipini du gune berria; birziklatzeko laugarren gunea da hau



Iturritza kalea.

BERRIZ • A. M.

Hondakinen kudeaketaren kontrola hobetzeko asmoagaz, Berrizko Udalak edukiontzi berriak ipini ditu. Etxeko olio, arropa, eta hondakin arriskutsuak birziklatzeko izango dira; birziklatzeko laugarren gunea da hau eta Iturritza kaleko 39. zenbakian ipini dute, Bidegain, Legaño eta Gabiola kaleetatik gertu. Beste hiru guneak Olakuetako aparkalekuan, Geltoki kalean eta Learreta Markina kalean daude. "Puntu berria Iturritza kaleko gune batean kokatu dugu zerbitzu horren erabiltzaileei makina eta edukiontzi batetik hurbil egon daitezten. Beraz, errazagoa, erosoagoa eta erakargarriagoa egingo zaie hondakin mota horiek botatzea", azaldu dute Berrizko Udaletik ohar baten bitartez.

Hondakin handiak

Halaber, udalak gogoratu du tamaina handiko hondakinen bilketa egiten dela astero ekainetik, eguenetan.

Otxandioko eskolan ipinitako 84 eguzki-plaketan sorturiko argindarra udaleko zortzi eraikinetan kontsumituko dute

Kontsumitzen ez den soberakina sare nagusira bideratuko dute eta kopuru horri dagozkion deskontuak izango ditu argindarraren fakturretan

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Trantsizio energetikorako 2020/30 plangintzaren barruan, Otxandioko Udalak hainbat ekintza burutu ditu 2022an. Orain hile batzuetatik, martxan da haurreskolako eraikinean ipinitako eguzki-plaka sistema eta oraintsu amaitu dute bigarren azpiegitura: Mainondoko eskolako teilatuan kokaturiko 84 eguzki-panel.

Eskolako azken azpiegitura horren potentzia 45,4 kWp da. Urteko 56.309 kWh sortuko dituela estimatzen da, eta euretariko 19.858 autokontsumitu egingo dituztela. Hain zuzen ere, udaleko zortzi eraikinetan kontsumituko da energia kopuru hori: eskolan, frontoian, udaletxean, gaztetxeko eraikinean, kultur etxean, jubilatuen lokalean, igerilekuan eta udal pabilioian. Haurreskolako instalazioan sorturiko energia, ostera, eraikin hartan bertan kontsumitzen da.

Herriko eraikinetan kontsumitzen ez den energia, hau da, soberakina (36.451kWh), argindar sare na-

gusira bidaliko da eta, ordainetan, udalak kopuru horri dagozkion deskontuak izango ditu argindarraren fakturretan. Izan ere, beti ez da posible sorturiko energia kontsumitzea; esaterako, udako oporraldian eskola itxita dagoelako eta neguan igerilekua itxita dagoelako. Azpiegitura biak ipintzeak —eskolakoa eta haurreskolakoa— 90.857 euroko aurrekontua eskatu du. Kopuru horren %97 diru laguntzen bitartez estali ahal izan du udalak.

Proiektu gehiago

Eguzki-plaka instalazioak trantsizio energetikoaren barruko estrategiaren lan ildo bat dira. Beste gehiago ere martxan ditu udalak. Esaterako, Europako funtsean diru laguntza eskaria egin da dauka eskolako eta frontoiko berokuntza sistema aldatzeko: gasoil galdaratik biomasaren eta eguzki-panelen bidezko sistemara. Horregaz batera, udala Oreka ekomunitate energetikoko bazkideatariko bat da.



Eskolako teilatuan kokaturiko eguzki panelen irudia.

Izurtzako antzerki saioak 30 bat lagun batu zituen

Aurrerantzean erabilera anitzeko gunean ekimen gehiago antolatzeko asmoa dutela azaldu dute udaletik

IZURTZA • J.D.

Joan zen barikuan umeei begira antolaturiko Bertoko eta urrutiko ipuinak antzerki musikatuak 30 bat lagun bildu zituen, umeak eta euren gurasoak batuta. Udaletik azaldu dute pozik daudela harreragaz, eta bertaratukoek ere egokitzat jo zutela ekimena.

Erabilera anitzeko guneari etorkizunean etekina ateratzen jarraitzeko asmoa dutela azaldu

du Oihane Irastorza zinegotziak. Izan ere, lokala 2019ko abenduan inauguratu zuten, pandemia heldu baino hilabete gutxi batzuk lehenago, hain zuzen ere, eta luzaroan ezin izan dute ekimenik antolatu.

Bestalde, eta herriko ekimenekin jarraituta, zapatu honetan emakumeen binakako pilota txapelketako partidu bi jokatuko dira frontoian, 18:30ean.

Santa Ageda koplak abestera irteteko hitzordu bana, Mallabian eta Mañarian

MALLABIA / MAÑARIA • J.D.

Mañarian eta Mallabian Santa Ageda koplak abestera irteteko dute zapatu honetan. Mallabian Mendibil abesbatzak antolatu du ekimena. 10:30ean hasiko dute ibilbidea, Longa auzoan, eta Gereatik, Arandoñotik eta Beranotik jarraituko dute.

Mañarian lehenengo koplak plaza abestuko dute, 08:30ean, eta gero auzorik auzo ibiliko dira. Ekimenak helburu solidarioa du; batuzko dirua Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara bidaliko dute.



Mendibil abesbatzako kideak izako abenduan auzorik auzo abesten ibili zireneko irudia.

MATRIKULAZIOA 2023 - 2024

OTSAILAREN 13tik 24ra

LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA
Hazi, hezi, hegan egin



INFORMAZIO ETA IZEN EMATEAK

944280174

idazkaria@landakoeskola.org



'Mundu berri bat guztiontzat' bildumaren 3. eta azken bilduma aurkeztu dute, asteburuan, Hernanin

Azken bilduma honetan Igor Elortzak, Leire Bilbaok eta Iñaki Exezarraga 'Etxe'-k parte hartu dute, besteak beste

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Bizipoza elkarteak ekitaldia egin du, asteburuan, Hernanin (Gipuzkoa), bilduma berria osatzen duten hamaika elkarteren kanta eta bideo klipak aurkezteko. Besteak beste, Igor Elortza durangarrak, Leire Bilbaok eta Iñaki Etxebeste 'Etxe' berriztarrak parte hartu dute hirugarren eta azken bilduma honetan.

Bizipoza elkartearen barruan 36 elkarte daude, behar bereziak dituzten haur eta familiek osaturikoak. Aurretik, beste bilduma bi kaleratu dituzte *Mundu berri bat guztiontzat* izenpean.



JON URBE

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Emozioa Ezkurdi Jai Alai frontoian

Txikia nintzanean askotan joaten nintzen ama, izeko, lehen-gusu-lehengusina eta ahizparekin Ezkurdiko frontoira osaba zesta-puntan jokatzeko ikustera. Gogoan dut zoroen pare animatzen genuela osaba, irabaz zezan; olatua egin, zarata batean bere izena esan... Zein oroitzapen onak!

Gerora, bikotekide nuena ere animatu eta ikusten nuen zesta-puntan jokatzeko Gernika Jai Alai frontoian. Honek oso gutxitan jokatu zuen Durangon, frontoiaren mantenu ezak berau erabiltzea galarazi baitzuen, eta garai hartan jada, orain dela hamar-hamabost urte, gero eta partida gutxiago egiten zituzten.

Penagarria izan da Durango leku enblematiko izen dena hondatzen ikustea. Penagarria benetan frontoiak ematen zuen bizia eta saltsa nola galtzen joan den bizitzea, baita txikitatik gustatu izan zaidan zesta-puntaz nire herrian gozatzeko aukera zapuztea ere.

Hamaika aldiz errepikatu dugu, herriko eraikin eta zerbitzuek mantenua behar dutela. Sortu edo eraikitzeaz gain, hauen ardura eta zaintza hartu behar da; bestela, orain arte gertatu bezala, eraikin eta zerbitzuak eraitsi, kendu edota habetu beharra sortzen baita.

Urte askoan frontoia hutsik, bizitza gabe egon ostean, azkenean lortu dugu konpontzea, lortu dugu frontoia berriro bizirik sentiaraztea. Urtarrilaren 27an berriz sentitu nuen zirra, eta beraz, berriz gozatu ahal izan nuen haurtzaro hain polita eman didan kirolaz. EH Bildutik beti defendatu ditugu kultura eta kirola; eta, are gehiago, eskal kulturaren erro diren esku pilota eta zesta-punta.

Durangaldea asteen

Durango EAJk gobernu taldeak egindako udal inkestaren "gardentasun falta" salatzen du

DURANGO | Herriko proiektuei buruzko informazioa "modu interesatuan desitxuratzeko" egotzi dio EAJk gobernu taldeari, herritarren artean egiten dabilzan iritzien inkestak direla eta. Jeltzaleek PERI Trenbidea proiektuari buruzko galderetan egin dute azpimarra.

Gaztetxearen kontrako erasorik onartuko ez dutela adierazi dute Berrizen


BERRIZ | Berrizko Hiltegi gaztetxean lau bider sartu dira lapurretan azken hileetan. Orain dela aste batzuk gertaturiko lapurretan, alkohola ostegaz gainera sukaldako txorrota zabalik utzi zuten. Ura beheko solairuan dagoen rokodromoraino heldu zen. Gaztetxe kideek azaldu dute "nazkatuta" daudela eta ez dutela gaztetxearen kontrako erasorik onartuko. Joan zen barikuan hainbat herritar batu zen erasoak salatzen.



AHTko lanetan sorturiko hondakinak errekarara bota dituztela salatzen du Elorrioko Udalak

ELORRIO | AHTko lanetan sorturiko zabor eta hondakinak errekarara bota dituztela salatzen du Elorrioko Udalak aste honetan. Gertakaria Iguria auzoan izan da eta udalak sare sozialen bitartez eman die gertakariaren berri herritarrei. Bestalde, gertaturikoa ikertuko dutela jakinarazi dute. "Elorrioko Udalak konpromiso sendoa hartuko du gertaturikoa sakon ikertzeko", esan dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



LIBURUAREN AURKEZPENA EGILEEKIN BATERA
Aurkezlea: Karolina Suarez

2023ko otsailak 9an - 18:30ean
(Sarrera gonbidapenarekin)

946 812 726

688 863 736 • biblioteka@iurreta.org



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA • KIRURGIA
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA
ODONTOLOGIA PEDIATRIKOA - PADI • HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)


{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - ucdental@gmail.com








ZER DA?

Batu puntuak marra zuzen batez eta irudia sortuko duzu. Gero margotu gurago duzun moduan.



LETRA ZOPA

Topatu beheko objektu hauek letra zopan.



S	O	Z	E	D	U	R	R	A	V	Q	V	J	J
G	N	O	N	L	Q	V	K	X	A	B	X	G	L
Y	T	X	A	N	O	A	O	M	Z	B	S	X	E
I	H	S	I	R	X	H	Z	C	U	Z	F	D	L
G	M	P	H	U	W	V	W	Y	Y	H	K	B	J
H	V	D	L	R	X	H	A	T	E	R	K	I	A
A	I	H	B	U	F	A	N	D	A	Y	J	V	Q
M	Y	F	U	E	S	K	I	A	K	N	Q	B	V
Y	B	P	B	O	T	A	K	O	T	G	X	L	L
L	U	L	U	T	H	P	K	G	E	E	L	Z	R
Z	V	T	H	Y	G	U	A	E	V	M	X	F	P
A	L	Q	L	T	R	I	N	E	O	A	J	Y	C
C	K	Q	A	Z	S	E	X	S	L	B	O	H	C
V	E	S	K	U	L	A	R	R	U	A	K	W	B

BIKOTEAK

Topatu pinguino bakoitzaren bikotekidea.



TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu beheko pinguino hauek txikitik handira.





GOTZON GARAIZABAL

Anonyme Popular

MUSIKA ELORRIO :: Otsailak 10

Ikus-entzunezko bertsoak

Igor Elortzaren berbak eta aho-tsa, eta Rafa Ruedaren doinuak eta soinuak uztartzen dituen *Anonyme Popular* zuzeneko emanaldia aurkeztuko dute Durangaldean lehenengoz, joan zen asteburuan Azpeitian estreinatu ondoren. Hitzak jostari josiz jarri ditu bertsoak Igor Elortzak; noiz sakon, noiz arin. "Norbanakoaz eta jendeaz ari da, maitasunaz eta desiraz, azaletik barrura eta

kanpora garenaz, gizonaz eta feminismoaz, euskaldunon iragan hurbilaz eta orainaldi urrunaz, eguneroko nahi eta ezinez. Garaiaz eta giroaz. Buruz beste bihotzez", egileen berbetan. Halaber, bertsoen hitzaren eta ahotsaren jarrera bereizgarri berekoak dira Rafa Ruedagaz landuriko doinuak eta soinuak ere. Rapa, trapa, popa, funkya, mundurako erritmoak...

Otsailaren 3an

ABADIÑO San Blas eguna

Azoka: Ganadua, baserriko tresnak eta makinak, ortuariak, fruta, gazta, txakolina, ogia, ezta, landareria eta artisautza lanak, goizean zehar. XXX. Abelburu erakusketa ere egingo da.

Txanbolin taldeagaz txistularien kalejira, 09:00etan.

Meza nagusia, 11:00etan, San Trokaz elizan.

Bertsolariak, 12:00etan, Ferialeku plazan.

Herri kirolak: Urrezko Aizkolariak txapelketa, gizonazkoen binakako norgehiagoka. Eusko Label Saria: Hodei Ezpeleta eta Basozabal vs. Iker Vicente eta Jon Rekondo, 12:00etan, probalekuan.

Harri jasotze txapelketa azkarra eta emakumezkoen harri jasotze erakustaldia.

DJ Bull, 16:00etan, elkartasun lonjan.

DJ Trebi eta NJO + DJ Gorriortxu eta Laztana, 17:00etan, Gaztetxean.

Erromeria Lotxo taldeagaz, 17:00etan, Ferialeku plazan.

Idi probak, 17:00etan (Kintopekoak).

Idi probak: San Blas Saria 2023, 22:00etan, probalekuan.

Xabi Solana + Zigor DZ DJ, 22:30etan, karpan.

IURRETA tailerra

'Pintzelakixki' arte adierazpen tailerra, herri

bibliotekan, Onditz Mendizabal Olabariak dinamizatuta. LH1etik LH3ra bitarteko ikasleentzat, 16:45etik 18:15era. Jarraian, LH4tik LH6ra artoke neska-mutilentzat. Aurretik izena eman behar da. Joxan Ormazabalaren Esker Oneko Jardunaldien barruan.

Otsailaren 4an

ABADIÑO sanblasak

San Blas 2023 Pilota Txapelketa, 12:00etan, Tornosolo trinketeian.

Idi probak: San Blas Saria 2023, 21:00etan, probalekuan.

Mus/partxis txapelketak, 18:30etan, Gaztetxean.

Erromeria: Bide Batez, 18:30etan, karpan.

Kontzertuak: Katu + Maixa eta Nahia, 20:00etan, Gaztetxean.

BERRIZ antzerkia

'Hondamendia' (Artedrama eta Axut! konpainiak), 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO dantza

'Dead' (Lasala dantza konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO tailerra

Surrandien maskara tailerra, 11:00etatik 13:00etara, Kriskitin dantza taldearen lokalean. Otsailaren 11n bigarren saio bat egingo dute.

IURRETA koplak

Santa Ageda koplak, 10:30ean plazan.

MALLABIA koplak

Santa Ageda koplak, Mendibil abesbatzak antolatuta, 10:30ean, Longa, Gereia, Arandoño eta Berano auzoetan.

MAÑARIA koplak

Santa Ageda koplak abesteko elkartuko dira herritarrak, 08:30ean, herriko plazan. Ondoren, auzorik auzo ibiliko dira abesten. Baturiko dirua Saharako errefuxiatuen kanpamenduetara bidaliko dute.

ZORNOTZA koplak

Santa Ageda koplak, 14:00etan, Herriko plazan. Armendola kultur elkarteak antolatuta.

Otsailaren 5ean

ABADIÑO sanblasak

The World's Strongest Man, 12:00etan, probalekuan.
'Amarau' magia ikuskizuna (Tor Magoa), 16:00etan eta 18:00etan, Txanporta kultur etxean.

Idi probak: San Blas Saria 2023, 18:00etan, probalekuan.

Otsailaren 6an

ABADIÑO sanblasak

Idi probak: San Blas Saria 2023, 21:00etan, probalekuan.

Otsailaren 9an

IURRETA aurkezpena

'M ama* eme* ume*'

liburuaren aurkezpena,

18:30ean, herri bibliotekan.

Erika Lagoma Pombar eta Estitxu Fernandez Maritxalar egileekin. Gonbidapena eskuratzeko, 94 681 27 26 telefono zenbakian, biblioteka@iurreta.eus helbidean edo 688 863 736 whatsapppean.

Otsailaren 10ean

BERRIZ antzerkia

'La fábula de la ardilla' (La Baldufa konpainia), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO berbaldia

'Del móvil a la placa de cocina, tecnología del día a día' berbaldia (Hizlaria: Edu Ogando fisikaria-EHU), 18:30ean, liburutegian.

IURRETA antzerkia

'Vida' (Javier Aranda konpainia), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Otsailaren 15era bitartean

DURANGO lehiaketa

Ourdaybi mendi film lehiaketa. Mendiagaz loturiko edozein gaigaz sorturiko lanak, gehienez zazpi minutuko iraupena dutenak, eta ourdaybi.mendifilm@gmail.com helbidera bidali daitezke.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEAN

• **El asombroso Mauricio**

barikua 3: 17:00

domeka 5: 17:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Llaman a la puerta**

barikua 3: 18:30 / 21:00

zapatua 4: 17:00 / 19:15 / 21:30

domeka 5: 17:15 / 19:30

astelehena 6: 18:00 / 20:15

martitzena 7: 18:00 / 20:15

eguzatena 8: 19:00

• **Los hijos de otros**

barikua 3: 18:30 / 21:00

zapatua 4: 19:15 / 21:30

domeka 5: 19:30

astelehena 6: 18:00 / 20:15

martitzena 7: 18:00 / 20:15

eguzatena 8: 19:00

• **Astérix y Obélix y el reino medio**

barikua 3: 18:30 / 21:00

zapatua 4: 17:30 / 20:00

domeka 5: 16:45 / 19:30

astelehena 6: 18:00 / 20:15

martitzena 7: 18:00 / 20:15

• **El chico león**

zapatua 4: 17:00

domeka 5: 17:15

• **El glorioso caos de la vida**

eguzatena 8: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• **Suro**

zapatua 4: 20:00

domeka 5: 20:00

astelehena 6: 20:00

• **Inspector Sun y la maldición de la viuda negra**

domeka 5: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Lobo Feroz**

barikua 3: 20:00

zapatua 4: 20:00

domeka 5: 20:00

astelehena 6: 20:15

• **El gato con botas: el último deseo**

zapatua 4: 17:00

domeka 5: 17:00

• **Costa Brava, Líbano (j.b.)**

zapatua 7: 20:15



ANDRAMARI

ZORNOTZAKO IKASTOLA

IKASLE ZORIONTSU ETA OSASUNTSUAK HEZI NAHI DITUGU ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLAN

Andramari Zornotzako Ikastolan gure helburua ez da soilik emaitza akademiko bikainak lortu dituzten ikasleak heztea; gure irteera profileen beste balio eta helburu batzuk ere ditugu jasoak. Besteak beste, gure ikasleak pertsona zoriontsu eta osasuntsuak izatea.

Laguntza Departamentua da helburu hori gauzatzeko delat egiazatzeko organorik esanguratsuenetako bat. Izan ere, hauxe da haren eginkizuna: HHTik hasi eta DBH amaitu arte, ikasle bakoitzaren berezitasunei, ikasleen aniztasunari, erantzutea, alor akademikoaz harago, ikasle bakoitzaren inguruabar guztiak aintzat hartuko dituen hezkuntza bermatzeko.

Ikastolako Laguntza Departamentuak aniztasun funtzionala bermatzen, zailtasun akademikoak atzematen, atzerritarrentzako euskara indartzen, bizikidetza sendotzen eta, oro har, egoera sozio-emozionala zaintzen jartzen du arreta. Pertsonen hazten laguntzea da gure lana, pedagogia aktiboak erabiliz, pertsonaren garapen integrala eta osoa ahalbidetuz, eta garapen kognitibo, emozional eta sozialaren arteko orekan.

Gaian aditu talde sendoa dauka Andramari Zornotzako Ikastolak, elkarrekin lanean, fokua ikasleengan ipinita, gure Hezkuntza Proiektuarekin bat egiten duena. Diziplina askotako bost langilez osaturiko taldea da, zuzendaritzan parte-hartze zuzena duena, ikuspegi sistemikotik abiatuz ikastola osatzen dugun orori laguntzeaz arduratzen dena. Tartean daude, besteak beste, pedagogia terapeutikoan espezializatutako irakasleak, hezkuntza-laguntzaile espezialistak eta hezkuntza psikologoak.



Ikastolako irakasleekin eta senideekin batera jorratzen dute aholkularitza- eta jarraipen-lana, laguntza-taldearen eta ikastolako komunitateko kideen arteko harremana etengabearen bidetik. Horri esker, ikasle bakoitzak behar dituen hezkuntza-jarraibideak eta pautak eskaini ahal dituzte.

Etengabeko prestakuntza lantzen dugu, Ikastolen Elkartean zein Berritzeguneetan bermatuta. Ikasturte honen zehar, adibidez, ikasle euslkadunen artean ager litezkeen idazketa eta irakurketa zailtasunak eta dislexia antzemateko "Neurehizki" pilotajea jarri dugu abian, eta AGH (Adimen gaitasun Handiko) ikasleei hezkuntza-arreta berezia emateko planean murgilduta gaude.

ANDRAMARI Zornotzako Ikastolan laguntza-jarduerarako espazio bereziak ditugu: PT lanak aurrera eramateko gela



bi, psikomotrizitate gela bat, arreta pertsonala eskaintzeko gela bat eta autoerregulazio gela bat.

Azken buruan, eta hasieran adierazi bezala, ikasle bakoitzaren berezitasunak eta guztien aniztasuna aintzat hartuta, hezkuntzaren ikuspegi globala lantzea dugu helburu, ikastolatik irteten direnean gizartean leku propioa izango duten pertsonak osotasunean hezteko: pertsona autonomoak, pentsamendu kritikoa izango dutenak, konprometituak, euskaltzaleak, eleanitzak, sortzaileak, osasuntsuak eta zoriontsuak.

ZORIONTSUA:

Norbere buruarekin ondo sentitzea, bere burua ezagutuz eta emozioak kudeatuz, edozein erronken aurrean erantzuteko.

OSASUNTSUA:

Osasun ohitura onak izan, gogokoa duen jarduera fisikoa maitasunez antolatu eta praktikatu, maila pertsonal eta sozialean oreka eta bizitza kalitatea bilatzeko.



TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA

2023-2024 MATRIKULAZIOA:
otsailaren 13tik 24ra arte

Bisita gidatuak eta
informazio gehiago:
946 73 29 50

zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus



Hondamendia. @AINHOA.RESANO

Zaldibarko hondakindegiaeren tragedian oinarritzen den 'Hondamendia', Berrizen

Axut! eta Artedramaren 'Hondamendia' Berrizko Kultur Etxean taularatuko dute zapatuan, otsailak 4, 19:00etan

ANTZERKIA • A.M.

*Hondamendia*ak, Axut! eta Artedramaren azken elkarlanak, 2020ko hasierara darama ikuslea. Bertako hondakindegia amildu ostean, askok Zaldibarko Eitzaga auzoa mapan kokatu zuten eta aktualitatearen epizentroa izan zen aste askoan. Otsailaren 6an izan zen lur-jausia, eta bertan Joaquín Beltrán eta Alberto Sololuzé langileak hil ziren. "Esan patua izan dela, esan zoria izan dela. Edo haien senide ttipi eta apala, zorte txarra. Ardua eta erantzukizuna maskaratzeko mozorroak ere izan daitezke, ostera, hondamendiari jarritako hitzok. Batzuentzat ezbeharraren dena istripua da beste batzuentzat", azaldu dute konpainiako lagunek, gertakariaren osteko egunak eta ekintzak testuinguruan kokatzeko. Bestalde, 2020ko martxoan COVIDa heldu zen eta komunikabideen fokua horra mugitu zen, garaia bera are gehiago nahasiz. "Zabor meta erraldoian aztarrika, bide-seinale modura erabiliko ditugun galdera ikurrak baino ez ditugu topatu. Eta bizitzaren balizko zentzuaren gainetik, bizitza bera huts-hutsean maitatu behar dugula dioen in-

tuizioa", azaldu du Harkaitz Cano idazleak; berak idatzi du istorioa. Antzezlanean langileak, langileen senideak, erizainak, enpresariak, kazetariak, prentsa arduradunak, politikariak eta abar agertzen dira. Pertsonaia horiek guztiak Ander Lipus, Ane Sagues, Ruth Guimera, Jon Ander Urresti, Maite Larburu, Manex Fuch eta Eneko Gil aktoreek

2010etik elkarlanean ari dira Axut! eta Artedrama, "euskal antzerki garaikidea" sustatzeko

gorpuztuko dituzte. Ximun Fuchek zuzendu du lantaldea.

Axut! eta Artedrama taldeak elkarlanean ari dira 2010etik, euskal antzerki "garaikidea eta herrikoia" egiteko helburuagaz, dioten legez. "Antzerkia herri baten isla bada garai jakin batean, orduan eskema propioak sortzeko beharra dugu: eskema ekonomikoak eta artistikoak, bitartekaritza eta heziketakoak, komunikazio eta ekoizpenekoak, teknikoak, saretze

eta harrerei lotutakoak... Zelan moldatuko gara kexatzeko, maitatzeko, haserretzeko, oihukatze edo iraintzeko eredurik ez badugu? Zerk sortuko ditu ereduak arteak ez bada?", galdetzen dute. *Errautsak*, *Hamlet*, *Francoren bilobari gutuna* eta *Zaldi Urdina* sortu dituzte, aurretik

aipaturiko ezaugarriekin. Hain zuzen ere, azken honen emanaldi batetik bueltan zetozela (Basaurin izan zen emanaldi hura) gurutzatu zen *Hondamendia* oinarritu duen istorioa Artedrama eta Axut! konpainiaren bidean. "Zaldi Urdina antzezlanaren eman berritan, eta bidean



Hondamendia. @AINHOA.RESANO

ikusi genuen mendia jausita, zientzia fikzioa ematen zuen", azaldu zuten Fuch zuzendariak.

Otsailaren 17an Elorrión, 24an Zornotzan, eta apirilaren 1ean ere egongo da ikusgai

Eskualdeko aukerak

2022ko urriaren 14an estreinatu zuten *Hondamendia*, eta 2023ko urte amaierara arte bira egingo dute. Berrizkoa ez da aukera bakarrik izango obra Durangaldean ikusteko. Datozen hiletan beste hiru aukera ere egongo dira *Hondamendia* ikusteko: otsailaren 17an, Elorrioko Arriolan; hile bereko 24an, Zornotza Aretoan; eta apirilaren 1ean Durangon, San Agustín kulturgunean.

Ekitaldia Eitzagan

Hain zuzen ere, hiru urte beteko dira Verter Recycling hondakindegia amildu zenetik, eta, hori dela eta, Zaldibarko Argitu plataformak beste mobilizazio batera deitu du, otsailaren 5erako. Ekitaldia egingo dute Eitzaga auzoan, 12:30ean. Txalapartariak, dantzariak eta Lucio Alonso abeslariak parte hartuko dute bertan. "Gure mobilizazioak hiru ardatzetan oinarritzen dira hasieratik: langileak, osasuna eta erantzukizunak. Enpresaren erantzukizunak ez daude zaltzan, baina Eusko Jaurlaritzaren argitzeko eskatzen jarraitzen dugu", azaldu du Gaizka Zabarte plataformako kideak. Ekitaldiak, besteak beste, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren babesarekin izango du.



Leire Milikua. TTAP

Irakurle talde feminista osatu dute Berrizen; lehen saioa, hilaren 9an

Arantxa Urretabizkaiak, Uxue Alberdik eta Leire Milikua abadiñarrak parte hartuko dute

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Berrizko Azeri Gorriak taldeak Kafeminista literarioak irakurle taldea martxan ipiniko du, Berrizko Udalaren Berdintasun Sailaren laguntzagaz. Hiru hitzordu antolatu dituzte horretarako, eta bertan egongo dira Arantxa Urretabizkaia, Uxue Alberdi eta Leire Milikua *Azken etxea*, *Jenisjoplin* eta *Lur gainean*, itzal azpian liburuak aurkezten, hurrenez hurren. "Hirurak oso ahots interesgarriak iruditzen zaizkigu, eta, era berean, profil desberdinetako jendearentzat erakargarriak izan daitezkeen

lanak aukeratzen ahalegindu gara. Jende asko mugitzen da gure asanbladaren inguruan, eta bestela berba egingo ez genukeen gaiez berba egiteko abiapuntua izan daitezke liburu hauek", azaldu du Miren Amuriza Azeri Gorriak asanblada feministako kideak. Saiotetan parte hartzea debaldekoa izango da, baina alde aurretik izena eman beharko da Berrizko liburutegian edo *azerigorriak@gmail.com* helbidera idatzita. "Aurrera begira, moduren batean edo bestean saretxo horri eusten ahaleginduko gara", gaineratu du Amurizak.

Kafeminista literarioak

Lekua: Berrizko Gaztelekuan.
Ordua: 18:00etan.

• **Otsailak 9**, Azken Etxea, Arantxa Urretabizkaiagaz.

• **Martxoak 23**, Jenisjoplin, Uxue Alberdigaz.

• **Maiatzak 11**, Lur gainean, itzal azpian, Leire Milikuagaz.

Pintzelak elkartearen lanak erakutsiko dituzte Zelaietan

Otsailaren 25era arte egongo da ikusgai, Zornotzako Zelaieta zentroan; hilaren 17an bisita gidatua egingo dute

MARRAZKIGINTZA • A.M.

Pintzelak elkarteak *Iruditik eskura*, *ideiatik kolorera*, *jatorritik amaierara*, *apaltasunetik*, *argia* erakusketa muntatu du Zelaieta Zentroan. Otsailaren 25era bitartean egongo da ikusgai erakusketa; hilaren 17an eta 24an bisita gidatuak egingo dituzte; bigarrena, gaztelaniaz. Bisita gidatuen bitartez, marrazkigintzan sakondu eta elkartearen jarduna bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute; bisita biak 19:00-20:30 bitartean izango dira. Pablo Astrain Pintzelak elkarteak

antolaturiko pintura ikastaroko irakaslea da, eta erakusketaren komisarioa ere bai. Ikastaroaren helburua arte plastikoen bitartez pertsonen sormen prozesua gartztea da. "Pinturagazko zaletasuna duten pertsonak sorkuntzarako, ikaskuntzarako eta garapen artistikorako gune bat aurkitzen dute Pintzelak elkartearen", azaldu du ohar baten bitartez.

Erakusketak eguaztenean zabaldu zituen ateak, otsailaren 1ean. 18:00etan hasi zen ate irekien ekitaldia.



Erakusketako lanetariko bat.

Gai librean

SMS bat jaso dut aspaldiko partez

Hamaika hitz, kontatuta. Nahikoak izan direla esatera ausartuko nintzateke; soberan ez baitut ezer aurkitu, faltan ezta ere. Mezu oso bat jaso dudana sentazioa izan dut; ez erdia, ez zati bat, ez amaituko gabeko zerbait. Melankolia apur bat sentitu dudala aitortu beharko nuke.

Gehiegi hitz egiten dut, badakit. Gehiegi luzatzen naiz, behar dudana, besteak behar duena eta egoerak eskatzen duena baino gehiago, gehienetan. Gehiegi idazten dugula uste dut, orokorrean, normalean; mezu motzak erronka bihurtzeraino.

SMS siglek "mezu laburren sistema" esan nahi dute, eta normalean, edo lehen behintzat, bai, mezu horiek ordaindu egiten ziren. Suposatzen dut orain horiek ere mugikorren



Eider Chavez Gallastegui
Irakaslea

tarifen barruan sartuta daudela, eta beraz, hiru bat mila bidal ditzakezula, bata bestearen segidan, goseak zaudenean janaria tragatzen duzun era berean.

Isiltasunak beldurra ematen du batzuetan. Zuzena izateak lotsa. Inkontzientziak espontaneotasuna. Pentsatzeak nagia. Nagiak errepikapena dakar. Beldurrak mugimendua. Mugimendua eta paralisia gorputz eta aldi berean. Lotsak ere beldurra ematen du. Ordaindu behar ez izateak neurrigabetasuna. Neurrigabetasunak inkontzientzia. Denbora eta bizitza amaigabea direla sinesteak, asperdura. Edo luzapena, gauzeta, harremanena, emozioena. Edo hitzontzikeria.

Isiltasunak beldurra ematen du eta horrekin, eta horretan, eta horrela, beste gauza guztiak kausatzen dira.

Norbaiti hitz labur eta argietan egiazko zerbait aitortzea, edo galdetzea, ez da gauza sinplea. Hitzek babesa ematen digute, gordeleku bat, ezerezari aurre (ez) egiteko bide ez hain bortitz bat. Sarritan baina, esaldi luzeen atzean, komen artean, emotikonoen interpretazioan, egia-erdi asko daude; beste hainbeste gezur-erdi; gehigarri eta apaingarri anitz. Aitzakiaz eta ihesaldiz josita daude mezuak gaur, perbertsio apur batez ere.

Etengabe presente egoteko egarrria eta beharra dugunaren iritzia daukat, egun osoa zerbait esaten ematearen behar arraro bat, onarpen sozialarekin zerikusia izan dezakeena, ez dakit. Nola edo hala, beti geratzen dira esan gabekoak, ezkutututakoak, eta Katamalok dioen moduan, "isildutakoak errepikatzen" ematen ditugu azkenean gauek.



Maite Gorrotxategi Potente
Erraketista ohia
SESTAO | 1926

“Emakumeak ezin ginen protagonistak izan, kontrakoa baino. Alde horretatik, erraketistak aitzindariak izan ginen”

Durangoko Udalak Gorrotxategi erraketista omendu zuen, joan zen domekan

PILOTA • JONE GUENETXEA

14 urteagaz, Maite Gorrotxategi Erraketista legez profesioaletan jokatzera. Joan zen domekan, Durangoko

frontoia lepo beteta, publikoaren txalo zaparrada jaso zuen. Sasoi hartan egindako lana aitortu zioten. Eskua harro altxatuta agurtu zituen ikus-entzuleak, kantxak sekula utzi

ez balitu legez. ‘Ermua’ jokariaren kasta nabari zaio.

Kantxan aitortza jaso zuten joan zen domekan. Zelan sentitu zinen?

Zoragarria izan zen. Jendea oso pozik ikusi nuen eta horrek asko poztu ninduen.

Erraketistak bidegileak izan zineten kirolean. Kirolari profesionalak zineten.

Bai, baina ez zegoen ondo ikusita. ‘Maritxiko’ batzuk ginela esaten ziguten, hobeto geundela etxean bordatzen. Emakumeak ezin ginen protagonistak izan, kontrakoa baino. Alde horretatik, erraketistak aitzindariak izan ginen, zaletasun handia genuen eta.

Zelan hasi zinen erraketan?

14 urte nituela Ermuan bizi nintzen eta Mallabikoak-eta entrenatzera joaten zirela ikusten nuen. Banekien Astelena frontoian entrenatzaile bat zegoela eta bertara joan nintzen entrenatu nintekeen galdetzerara. Lanera joan behar nuenez, 07:00etan entrenatu gura nuela esan nion. Eibarrera joaten nintzen, ordubete entrenatu eta trenean lanera joaten nintzen, 09:00etarako.

Zelan eman zenuen profesioaletarako jauzia?

Bartzelonako enpresari bat Astelena etorriko zela esan zigun entrenatzaileak. Gure jokoa ikusi gura zuen. Zazpi jokalaritik bost fitxatu gintuen. Handik etxera joan nintzen eta amamak esan zidan hori gura banuen joan nintekeela.

Maleta hartu eta Bartzelonara joan zinen.

Maleta egin eta Eibarko geltokira joan nintzen. Bidean, Areitioko emakume baserritar batek maletagaz ikusi ninduen eta maleta karroan sartuta Astelena ondoan

utzi ninduen. Trenean joan ginen Bartzelonara. Treneko jatetxean afaldu genuen, oilaskoa. Gutariko batek tortilla fratsesa eskatu zuen. Orduan sasoi oilaskoa jatea gauza handia zen eta galdetu genion ea zergaitik eskatu zuen tortilla oilaskoa egonda. Aiztoagaz eta sardexkagaz jaten ez zekiela erantzun zigun. Bartzelonako gerenteak errespetua ematen zigun eta, mahaian zegoenez, kurioso jan behar. Herri txiki batetik gindoazen. Hasieran hotelean egon ginen, baina gero pisu bat hartu genuen talde horretako hiruren artean.

Zelako esperientzia izan zen Bartzelonakoa?

Jokoan arreta handia ipintzen genuen. Bulegotik begira geneuzkan eta joko-maila jaitziz gero deitu egiten ziguten. Profesionalak ginen.

Hain gaztea izanda, zelan bizi izan zenuen aldaketa hori?

Oso esperientzia ona izan zen. Berritro 15 urte banitu errepikatu egingo nuke. Dirua irabazten genuen eta hilero 500 pezeta bidaltzen nituen etxera. Sasoi hartan asko zen. Gainera, oso giro ona zegoen. Beste kirolari profesional batzuekin elkartzen ginen. Barçako futbol jokalaria, waterpoloak, igerilariak, tenisleriak... **Zenbat urte egin zenituen profesioaletan?**

14tik 19 urtera arte egon nintzen Bartzelonan. Frontoiak zarratzerakoan Mexikora joateko proposamena egin ziguten, baina ezetz esan nuen. Logroñora joan nintzen eta hura ere itxi zutenean Ermura bueltatu nintzen.

Durangoko pilota eskolaren jai handia

Maite Gorrotxategigaz batera, Txaber Zabala Durangoko pilota eskolako entrenatzailea omendu zuten Ezkurdin

PILOTA • J.G.

Durangoko Ezkurdi Jai Alairen berri-inaugurazioko domeka Durangoko Pilota Eskolako kideak batzeko baliatu zuten. Pilotari profesionalen partiduaren aurretik, eskolako ume eta gazteek kantxa berria probatzeko aukera izan zuten. Itoginik barik eta euren idoloak inguruan zizutela. Publikoan zeuden hainbatek egun horretako omenaldian izan zuten Maite Gorrotxategi erraketista durangarraren berri. Iragarri barik zegoen arren, bigarren omendua gertuagokoa zuten: Txaber Zabala pilota eskolako entrenatzailea. Zabalak 15 urte daramatza Durangoko Pilota Eskolan entrenatzaile. Egindako ibilbi-

dea eskertzeko, omenaldi xumea egin zioten. Etxean jokatzearan abantaila izan zuen, eskolako gazte eta umeen txaloeak erakutsi zuten legez. "Niretzat sorpresa ikaragarria izan zen, ez nuen espero. Askok eskertzen dut egunero egiten dugun lana kontuan hartzea. Askok poztu nintzen, baina umeak pilotan gozaten ikustea da benetan betetzen nauena. Nire atzean dagoen batzordea ere aipatu gura nuke, eurak barik ezingo genukeelako Durangoko pilota eskola aurrera eraman", adierazi du Zabalak. Bestalde, domekako ekitaldian pilota eskolako Jose Maria Agirre 'Peter' eta Angel Sauto gogoratu zituzten.

Pilota eskolak 50 urte dituen arren, orain 19 urte udalak pilotaren alde egin zuen eta ekonomikoki apustu sendoa egin zuen. "Lehenengo Joseba Badiolak hartu zuen ardura, eta geroago nik, eta, ikastetxeekin elkarlanean, pilota eskolako kideekin apurka-apurka pilota indartuz joan da zesta-puntaren pare ipini arte Durangon", azaldu du Zabalak. Gaur egun 83 neska-mutil dabilta esku pilotan eta palan jokatzen.



Goian, Julián Ríos, Txaber Zabala, Maite Gorrotxategi eta Ima Garrastatxu. Behean, pilota eskolako kideak eta pilotari profesionalak.

Iker Unzueta, Lehenengo Federazioko aurrelaririk onenen artean zortzi golegaz

Entrenatzailearen konfiantza du hasiera-hasieratik eta abadiñarra golekin erantzuten dabil



Iker Unzueta Logroñesegaz sarturiko gol bat ospatzen. SD LOGROÑES

FUTBOLA • J.D.

Iker Unzuetak (Abadiño, 1998) zortzi gol daramatza 21 jardunalditan SD Logroñes taldeagaz, eta Lehenengo Federazio mailako golegilerik onenen artean dago. Abadiñarra aurten batu da Errioxako taldera —Amorebietatik— eta berehala egokitu da taldera. Ia partidu guztiak jokatu ditu osorik, eta gehienetan titular. "Entrenatzaileak [Raul Llona] esan zidan oso kontuan hartuko ninduela, eta, egia esan, asko jokatzen nabil. Gustura nabil eta konfiantzagaz", adierazi du. Zortzi goletako lau penaltiz sartu ditu. Eraginkortasuna

"Entrenatzaileak esan zidan kontuan hartuko ninduela, eta, egia esan, asko jokatzen nabil"

erabatekoa da: jaurtitako laurak ate barrura joan dira. Gainerako lau golek berezitasun bat dute: denak lehenengo ikutuan sartu ditu. Sarturiko golen artean, bi azpimarratzen ditu batez ere. Batetik, joan zen asteburuan Murtzian sarturikoa, 0-1 irabazteko balio izan zuena. "Murtzia talde bikaina da, bigarren mailara igotzeko modukoa, eta han gola sartu eta partidua irabaztea itzela izan

da denontzat", gogoratu du. Bestetik, Castello taldearen kontra sarturiko gol biak. "1-0 galtzen gindoazen eta gol biek partiduari buelta emateko eta hiru puntuak batzeko balio izan zuten", esan du. Castello ere mailaz igotzeko faboritoen artean dago.

SD Logroñes sailkapeneko berderatzigarren postuan dago eta hiru puntura du hirugarren doan taldea, Amorebieta, Unzuetairen iazko taldea. Mailari eustea dute helburu, baina goian jarraituz gero edozer amestu daitekeela dio jokalariek. Asteburuan Osasuna B-ren aurka jokatuko dute.

Arabiourrutia Euro1Wall proban lehiatu da, lehenengoz

Pilotari abadiñarra finalera heldu zen buruz buruko txapelketan, eta tanto bakarrarengaitik galdu zuen

PILOTA • J.D.

One wall modalitateak, horma bakarreko pilota jokoak, zirkuitu bat du Europan: Euro1Wall Tour. Lau open-ek osatzen dute zirkuitua, eta lehenengoa Herbehereetan jokatu zen, asteburuan. Euskal Herriko lau pilotari izan ziren han; euretarikoa bat, Aitor Arabiourrutia pilotari abadiñarra. Lehenengoz parte hartu zuen txapelketa honetan. Buruz buruzko txapelketa B mailako finalera heldu zen Arabiourrutia. Finalerdia tanto

bategaitik irabazi eta finala tanto bategaitik galdu zuen; azken hori Belgikako pilotari baten aurka. A mailako finala Lur Ziarrusta dimoztarrak irabazi zuen.

Binakakoan, Arabiourrutia Mikel Aurrekoetxea lemoarragaz jokatu zuen eta Ziarrustak Mikel Beldarrain artearragaz. Bikote biek ez zuten hasierako ligaxka gaintzerik lortu.

Zirkuituko hurrengo irekiak Erresuma Batuan, Belgikan eta Espainian izango dira.



Euskal Herriko parte hartzaileak Euro1Wall txapelketan.

Jokaldia

Abadiño Cycling Academia

Atzo, Bizkaia Irratian berbetan nengoe-la, San Blasen atarian, ondorio handi batez ohartu nintzen. Bere sasoiaren, nazkatuta nengoelako utzi nuen txirrindularitza, beti isilik egotez gogaituta eta injustizien kontra joanez gero, kaltetuenak ni neu eta nire helburuak ginelakoan. Harrezkero hamar urte joan diren arren, amorru hori ez zait barrutik kendu eta, orain, injustizia haiei buelta emateko eta emakumeen txirrindularitza aldarrikatzeko sortu dut Abadiño Cycling Academia.

Emakumeek injustizia asko bizi izan ditugu kirolean. Orain lasai hitz egin dezaket eurei buruz eta, gainera, egoera hobetzeko eta emakumeen kirola bultzatzeko borroka egin dezaket. Horretarako, erremangatu eta buru-belarri la-



Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindularitza

Nazkatuta utzi nuen txirrindularitza, injustizien kontra eginez gero kaltetuenak ni neu eta nire helburuak ginelakoan

Orain lasai hitz egin dezaket, eta egoera hobetzeko eta emakumeen kirola bultzatzeko borroka egin

nean ari naiz, eskoletatik eta udaletatik txirrindularitzari lotutako promozioak eginez; gure umeek kirola egiteko eta ondo pasatzeko aukera izan dezaten, eta handi egiten direnean profesional mailara iristeko aukera izan dezaten hemen, etxean bertan. Oso gustura nabil, nahiz eta orduak eta orduak pasatu ordena-

dorearen aurrean eta askotariko bulegoetan kirol hau defendatzen. Gainera, ekitaldietan ume asko egoteak oraindik indar gehiago ematen dit nire borrokan jarraitzeko.

Txirrindularia izatea erabaki nuen, banekien horren ondorioak zeintzuk ziren, eta orain ere horretan datza niretzat: batez ere, emakumeen rol handiagoa ematea txirrindularitzaren munduan, eta gure umeek ikus dezatela, bihotzean badaramate, lanaren bidez helduko direla helburuak eta ilusioak, lehenago edo geroago. Proiektu hau hasi berria da, eta urtero ekintza berriak eta kategoria berriak sortuko ditugu. Bizitzarako ere balore politak eta zuzenak lantzea ere badelako akademia honen helburua. Beraz, beti aurrera begira, eta hemendik 4-5 urtera berriro hitz egingo dugu ondorioak ateratzeko.

Athletic Club




Vs



Girona FC

Athleticen eta Gironaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Atheticek San Mamesen jokatuko dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk hemendik aurrera.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: otsailaren 20a.

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



anboto
kide



Botikak

BARIKUA, 3 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 4 · 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-13:30

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 5 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 6 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 7 · 09:00-09:00

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 8 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 9 · 09:00-09:00

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Uxue (922. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak, **pirata!** Askok maite zaitugu. Ama, aita eta Alize.



Zorionak, **Eihar!** Aurten 15! Eutsi 15.000 mosu etxeko danon partez.



Zorionak, **Alaitz!** Oso ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **June,** zure 6. urtebetetzeari; jarraitu horrelako neskato alai izaten. Patxo handi bat etxeko guztion partez!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 1° / 11° ☁️

ASTELEHENA ↓ 2° / 9° ☁️

EGUAZTENA ↓ 1° / 8° ☁️

DOMEKA ↓ 6° / 8° ☁️

MARTITZENA ↓ 0° / 9° ☁️

EGUENA ↓ 0° / 10° ☁️

ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



"Betidanik josten aritu diren andrekin liluratu egiten naute"

Saioa Segurak motxilak, diru-zorroak eta betaurreko-zorroak egiten ditu, Veletta izenpean. 2019an hasi zen proiektuari forma ematen, eta urtebete da marka formalizatu zuela



Saioa Segura
Bilbao

Veletta

DURANGO | 1986

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Saioak berak diseinatu eta sorturiko motxilekin abiatu zuen Veletta. Eskari bidez lan egiten du durangarrak, Interneten (www.veletta.shop) eta sare sozialen bitartez (@myveletta).

Material birziklatua eta beganoa erabiltzen duzu motxilak egiteko. Horrek egiten du berezi Veletta?

Material beganoa erabiltzea oso garrantzitsua izan da hasieratik. Velettaren ezaugarria da hori eta geroago eta produktu ekologikoagoak sortzea. Horretarako, etengabe nabil oihal bila. Iragazgaitza, birziklatua, beganoa, estanpatu daitekeena... ezaugarri guztiak betetzen dituen oihala lortzea ez da erraza. Beraz, Veletta jasanga-

ria da inguruarentzat, denboran iraungo duen produktua da, zero kilometro kontzeptua betetzen du, eta bitartekorik barik (Durangoko eta Bilboko enpresa bigaz lan egingo dut). Birziklatze prozesu batetik ateratako PET plastikoagaz (birziklaturiko plastiko botilekin) egindako poltsak ere badituz, adibidez.

Slow Fashion motako osagarriak dira. Bai, guztiz. Lan hau amatasunagaz uztartzen dut eta horrela jarraitu gura dut. Batez ere, eskarguz lan egiten dut, baina denbora dudanean lan berriak prestatzen ditut. Hiriburuetan antolatzen diren Pop Up dendetan ere parte hartzen dut. **Zoriontasunaren motxilak direla irakurri dugu.**

Bueno... Motxila desberdinak, dibertigarriak eta koloretsuak sortzea da helburua. Norbera janzkera xumeagaz edo apaindura gutxigaz

Motxila desberdinak, dibertigarriak eta koloretsuak sortzea da helburua

joan arren, motxilak txispa apur bat ematea da kontua. Hori da Velettaren jokia. Ez dakit zoriontsuago egingo zaituen, baina egunari alaitasun apur bat eman diezaiotke (barrez).

Urte askotako zaletasuna duzu jostea. Autodidakta zara?

Bai, bakarrik hasi nintzen ikasten, tutorialekin. Josteko lehenengo makina 20 bat urtegar hartu nuen. Izugarri gustatzen zait eta apurka-apurka geroago eta gehiago murgildu nintzen joskintzan. Arropa jostea ere gustatzen zait, baina maila pertsonalean. Bilboko jostun batez ikasi nuen patronajea, Margaren dendaostean. Betidanik josten aritu diren andrekin liluratu egiten naute. Euretariko baten ondoan ipini eta dakien guztia erakustea gura nuke.

Jarraitzen diezu moda tendentziei?

Koloreak aukeratzeko eta konbinatzeko begiratzen diet moda tendentziei, baina, bestela, neure kasa ibiltzen naiz.

Koloreak aukeratzeko eta konbinatzeko begiratzen diet moda tendentziei, baina, bestela, neure kasa sortzen dut

Urte hauetan zelan hazi da Veletta?

Motxilen bilduma da Velettaren funtsa; horregaitik ezagutzen naute, batez ere. Baina, askotariko pertsonaiengan oinarrituriko betaurreko-zorroek ere arrakasta handia dute: Jack Nicolshon, Kurt Covein, John Lenon, Sophia Loren, Brigitt Bardot... Gustatzen zait ikustea jendea zelan harritzen den zorroek atzean duten istorioa kontatzean, eta mordia saltzen dut. Diseinu geometrikodun diru-zorroak ere badituz, guztiak desberdinak. Motxila berriekin hasiko naiz laster, beste oihal batzuekin probatuta.

Zeintzuk erronka dituzu aurretik?

Velettak bizirik jarraitzea gura dut. Sortzea gustatzen zait eta horretan jarraitu gura dut. Baina ez dakit moda munduan sartuko nitzatekeen. Igual denbora gehiago dudanean, esperientzia gehiagoz... Eta prozesua kanpora aterata, Euskal Herrian bada hobeto; baina Slow Fashion kontzeptuari jarraituta. Emakumeen tailer bat sortuta, adibidez.

Lau-hortza

Ibai Zabala
Gandarias
Irakaslea



Memoria

Asko dira etxean gurasoen ahotik entzun izan ditudan pasadizoak. Barregarriak batzuk, negarra ere eragiterainokoak; mozkorraldiekin edo herriko xeblekeriekin lotutakoak gehienak. Besteak, ordea, mingotsak, kontatu ahala aurpegia ere belzten zaien horietakoak. Bada, garratz horietako batek 41 urte bete zituen aurreko astean: Espainiako zerbitzu sekretuen agindupean zegoen Batallón Vasco Españolak Berrizko Ganeko Etxe jatetxean jarri zuen bonbak. Garratza oso nire gurasoentzat, ez Berrizen gertatu zelako bakarrik, lehergailuak eztanda egin zuenean tabernan zeudelako baizik. Ganeko Etxek tabernaren eta jatetxearen aldeak banatuta zituenez, tabernan zeudenak ez ziren zauritu: "Han gengozala kriston danbatekue entzun zan: argi danak juen zien, atie blokeau zan... Zelan edo halan atie bota gendun eta urten ginen bertatik. Orduen, Lourdes (momentu hartan jatetxean zerbitzari lanetan zebilena) ikusi gendun arpeixe metrailiaz josite, odol bati koitau; kotxien sartu eta Durengoko anbulatoriora erun gendun. Gero, ospitelerara erun eben bertatik. Zorixonez, onik urten zan".

Horrez gain, leherketa gertatu baino lehen jatetxean afaltzekotan zegoen eta bertan otorduak egiteko ohitura handia zuen nire osaba, "etxien afarixe prest dekok" batekin nire gurasoek etxera bidali izana ekarri zuen patuak. Agian, patuak berak ere eragin zuen hildako edo zauritu larririk gabe pasa zedila ekintza hura ahanzturara, Berrizko herriaren oroimenean baino geratuko ez zen gertaera ilunen biltegira. Eta horregatik idatzi dut hau; ez patuagatik, memoriagatik baizik.

SAN
ROKE
BARRIA

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa



Proiektu berria Durangon,
efizientea eta terraza zabalekin.

INFORMAZIOA

946 46 20 41
www.sukia.com